

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANPEZUKO UDALA

Gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostua betetzea, zehazki Kanpezuko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua

Alkatearen maiatzaren 28ko 129/2020 Dekretuaren bidez, hitzez hitz jasotzen den xedapen zati hau onetsi zen:

Kanpezuko Udaleko idazkari-kontuhartzailea azpieskalako lanpostua gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostua da.

Lanpostu hori hutsik geratuko da 2020ko ekainaren 1etik aurrera, titularraren zerbitzu eginkizunengatik.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 21.1.h) artikuluan xedatutakoa aintzat hartuta, ebazten dut:

Lehenengoa. Dagokion iragarkia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera bost egun balioduneko epea ematea, Kanpezuko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetze aldera eskaerak aurkezteko. Lanpostu hori gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 48.enetik 51.en artikulura xedatutako legezko zernahi eratan bete ahal izango da. Gaikuntza nazionala duen toki administrazioko funtzionario bat izendatuko da, lanpostuaren azpieskala eta kategoria bereko hautagaiak lehentasuna izanik; kontu hori behar den moduan egiaztatuko da. Hautagai bat baino gehiago aurkezten badira, honako hau proposatuko da izendatua izateko hautagai moduan: parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean Ogasun Eta Herri Administrazio Ministerioak argitaratutako azken merezimendu lehiaketan puntu gehien lortu duena. Idazkia posta elektronikoko helbide honetara bidaliko da: campezo@campezo.eus.

Bigarrena. Jakinarazten da idazkari-kontuhartzaile lanpostuak 3. hizkuntza eskakizuna duela esleituta, merezimendu gisa. Lanaldia osoa izango da.

Hirugarrena. Aukeratutako hautagaiaren behin-behineko izendapena proposatzea Arabako Foru Aldundiari.

Laugarrena. Ebazpen honen berri ematea udalbatzari, egiten den lehen osoko bilkuran.

Santikurutze Kanpezu, 2020ko maiatzaren 28a

Alkatea
IBERNALO BASTERRA TXASKO